

Urtebete da jatorri izena duen sagardoa bere markarekin saltzen duela

**EROSKI-K BIKOIZTU EGIN DU EUSKAL
SAGARDOA JATORRI IZENAREN SALMENTA**

- EROSKIek Euskal Sagardoaren hogeit hamar urteko ekoizlerekin dihardu, eta 2018an 54.600 litro pasa saldu zituen
- Euskal Sagardoa bigarren urtea egingo du EROSKIren dendetan, eta ekoizpenaren %12,5 bide horretatik saltzen du dagoeneko; helburua da bost urteren buruan %20ra iristea
- Aurtengo kanpainari Euskal Sagardoarekin ekin dio EROSKIek txotxarena Usurbilgo hipermerkatuan eginda, noren eta Esne Beltza musikari taldeko Xabi Solanoren eta EITBko aurkezle Asier Odriozolaren eskutik
- Kanpaina honetan, berritasun gisa, kontsumitzaileek parte hartu ahalko dute Selektuaren Euskal Sagardoa hautatzen; ekainean izango da hori EROSKIren saltokietan

Usurbil (Gipuzkoa), 2019ko urtarrilaren 28a.- [EROSKI](#)ek bikoiztu egin du Euskal Sagardoaren salmenta Euskal Autonomia Erkidegoan, ziurtagiria sortu zenetik bigarren kanpaina izan den horretan. Kooperatibak 54.613 litro saldu zituen iaz izen horrekin. Gau egun, Euskal Autonomia Erkidegoko hogeit hamar urteko hornitzaileekin dihardu; hala, tokiko ekoizleei ematen dien babes handitu egin du, eta, beraz, baita euskal ekoizpen ehunaren aniztasunari ematen diona ere.

"Irmo jarraitzen dugu euskal ekoizpen ehunaren aldeko apustuan; izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da hura aldezte, iraungo badu eta gure inguruko enplegua, ekonomia, kultura eta paisaia indartuko badira. Horren erakusgarri da Euskal Sagardoaren bigarren kanpaina. %12,5eko salmenta lortu du EROSKIren dendetan, eta helburua da bosgarren urtean %20ra igortzea", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

EROSKIek, 2018an 842.850 litro salduri EAEn, larunbatean abiatu zuen aurtengo sagardo sasoia Usurbilen, Urbil hipermerkatuan; hain zuzen ere, Astigarragarekin eta Hernanirekin batera Gipuzkoako sagardoaren hiriburua den herri horretan. "Txotx irekieran, hor izan ziren Esne Beltza taldeko Xabi Solano musikari eta kantaria eta EITBko Asier Odriozola aurkezlea. Horien ondoan egon zen Unai Agirre, Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzailea, eta Euskal Herrian oso errotuak dauden sagardo etxeetako ordezkariak.

"Euskal Sagardoa egiteko, 450 hektareetatik baino gehiagotatik hartu dituzte sagarrak, eta 200 sagar ekoizle pasa jardun dira Euskal Sagardoa Jatorri Izenarekin ari diren 50 upategirentzat. Jatorri Izenaren lehengaia ekoizten dute horiek, eta, beraz, ezinbestekoak dira gure proiektuak aurrera egin dezan", esan du Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzaileak, Unai Agirrek. "Sagarraren ekoizpena pixkanaka profesionalizatzen ari da; horri esker, sagarrak kalitaterik onena duela eta orekatua

dela bermatuko ahalko da, eta horrek, era berean, Euskal Sagardoaren beraren kalitatea bermatuko du. Gainera, EROSKI ere, banatzailea den aldetik, funtsezkoa da sagardoaren sektorearen etorkizuna bermatzeko", esan du.

Seleqtia sagardoa hautatzeko prozesu parte hartzailea

Jatorri izena marka propioarekin saltzen hasi zenetik, EROSKI martxan jarri du ekimen bat kontsumitzaileek parte har dezaten Seleqtia markarekin saldu duen Euskal Sagardoaren hautapen prozesuan; hala, haiek hautatuko dute 2019an zein sagardo botilatu eta salduko den marka propioarekin.

EROSKI sagardoaren tradiziokoa izan den era bat berreskuratuko du. "*Txotxa bihurtu da gure kultura gastronomikoaren eta jaiaren erreferentea, baina beti ez da horrelakoa izan: jatorrian, probaketa egiten zen; hau da, erosleek sagardorik onenak hautatzen zituzten, eta botilatu ondoren tratua egin*", gogorarazi du Asun Bastidak.

Prozesu horretan bi rol daude: sagardogileak eta kontsumitzaileak; horiek izango dute azken hitza, eta berek hautatuko dute zein sagardo salduko den. Beste eragile batzuek ere parte hartuko dute, hala nola kalitateaz arduratzen diren enpresak eta BCC bera, zeinak ezagutza zientifikoa eta teknologia modernoak baitarabiltza produkturik onena lortzeko.

Kanpaina abiatzeko, urtero jarriko da martxan ekimen hori. Lehenengo, dastaketa egiteko panelak sortuko dira, eta martxoan, azken erabakia hartuko dute. Euskal Sagardoaren Kontseilu Arautzailea ariko da dastaketa panela prestatzen eta hautatzen, eta jendeari behar dena erakusten; horrez gain, sagardo guztien dastaketa eta balorazioa egingo du. Ekainerako, Seleqtia markaren urteko Euskal Sagardoa prest egongo da EROSKIren saltoki guztietan.

Informazioa:

<p>EUSKAL SAGARDOA J.I. Euskal Sagardoa Jatorri Izenaren koordinatzailea Unai Agirre Tel: 688 64 59 46 zuzendaritza@euskalsagardoa.eus</p>	<p>EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernandez, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642</p>
--	---